

iritzia

Euskal kulturginok, elkartu zaitzete! (Eta III)

Euskal kulturaren batzarre iraunkorra

Tituluak berehala dakarkigu Katalanek 1976-1977 urteetan egin zuten "Congrés de Cultura Catalana". Kultura katalaneko sail guztien mobilizazio handia izan zen hura, urtebetez iraun zuena. Jakina, orduko Katalunyak egoera soziala eta politikoa eta oraingo Euskal Herrikoa oso ezberdinak dira seguruenik. Eta orduko kultura katalana eta oraingo euskal kultura ere egoera aski ezberdinetan daude; baina kidesatuen franko ere ba dutela uste dut.

Kultura katalanaren egoera "anormala" baieztatzen hasi zen Kongresu hura: "La cultura catalana se troba en una situació d'anormalitat..." Eta, bestalde, aurretik ere ba zetorren asmo baten ondorio bezala sortu zen Kongresuarena; kultur sail ezberdinen koordinazioa zen asmo hura: "Una coordinació dels diversos sectors de la cultura per a fer un balanç cultural global".

Koordinazioa eta normalkuntza: horra Kongresuaren bi ideia nagusiak. Haren helburuak, berriz, hirutara biltzen ziren: 1) Arazoak aztertu, irtenbideak aurkeztu eta "Manifest de la Cultura Catalana" bat idatzi; 2) Kultura katalanari buruz sentikortasun berri bat piztu eta horren arazoez gizar-tea jaberazi; 3) Kultur zabalkunderao tresnen azpiegitura sortu.

Kultur krisia eta normalkuntza

Euskara kinka larrian dagoela, esana eta oihukatua dago hamaika bider; eta euskararekin batera, euskal kultura osoa; eta euskal kulturarekin batera, Euskal Herri osoaren izatea. Nere ustez, euskara galtzarekin, Euskal Herriak ez luke "Euskal" Herri izate

tea galduko bakarrik —orain dela gutxi, Satrustegi Inak esaten omen zuen bezala; Euskal "Herri" izatea ere galdu egingo luke. Baina hori beste arazo bat, benetan "Euskal Herri" izaten iraun nahi dugunontzat.

Krisialdi larri horretatik ateratzeko normaltasunera iristea esan gura du. Normaltasunera, berriz, ez da euskara —eta euskal kultura— iritsiko, horretarako lege edo dekretu batzu eman arren, edo batzorde eta instituzio handi batzu sortu arren.

Bide horixe litzateke Euskal Kulturaren Batzarre Iraunkorra: Batzarre edo Kongresu dinamikoak, beraz, bidea urratu egin behar delako.

Gure kultura nazionala izateko, Euskal Kulturak dituen premiak eta eskabideak zehaztu beharko ditu. Eta euskal hizkuntza eta kulturaren normalkuntzara iristeko, plangintza orokorra landu beharko du: tresnak, bideak, azpiegitura. Horietxek dira Koordinazioaren helburuak, izan ere.

Batzarrearen abiaburuak

Euskal gizarte eta Herri osoari irekia eta zuzendua dago Batzarrea; ez da sektoriala eta ez da sektarista. Baina puntu finko eta seguru batzuetatik abiatu beharko luke. Hona horietako batzu:

1.—"Euskara, hizkuntza nazionala". Hori ez da baieztatzen abstraktu eta estatikoa, konkretua eta dinamikoa baizik: Hau da, Euskal Herri osoarentzat berreskuratu be-

harra eta euskal kultura moderno, zientifiko eta teknikoarentzat euskararen egokitu beharra baieztatzen ditu. Berreskurapena eta trebakuntza eskatzen ditu euskararen normalkuntzak. Normalkuntza horrek, berriz, juridikoa, instituzionala, soziala, kulturazko eta linguistikoa izan behar du.

2.— "Kultura euskalduna". Euskara ez da defendatzen eta lantzen hizkuntzako formalismo hutsean, eta bai euskal kultura osoaren oinarrian eta barnean. Euskal kultura osoak eskatzen duen ikerkuntza, hazkundea eta zabalkundearen bidea eta ahalegina, euskararen beraren ikerkuntzarekin, berreskurapenarekin eta gaurkotzearekin batera doa.

3.— "Euskal kultura irekia". Euskara eta euskal kultura nazionalak, Euskal Herri osoaren proiektu nazionalaren oinarrian daude, eta horren mamia dira. Baina Euskal Herriaren oraingo egoera hizkuntzako eta kulturazkotik abiatu behar da, horren gainean eta euskaldun guztien errespetu handian, proiektu nazionala egiteko. Bestalde, euskara eta euskal kultura ez dira Herri honen "gatzelua" soilik, eta bai kultura unibertsalera iritezko zelaia eta hori gureganatzeko plataforma.

4.— "Kultura autonomoa". Kultur alorraren dinamika autonomoa baieztatzen behar da. Euskal Herriko Erakunde publikoek erantzukizun berezia dute euskararen eta euskal kulturaren normalkuntzari buruz; baina beren eginko-

zuna "subsidiarioa" da, hots, kultur indarrak beren aldetik egiteko eta eragiteko gauza ez diren mailan, egiteko, eragiteko eta laguntzeko. Ordezkaritzaren eta eskupean kontrolatu nahiaren tentazioa uxatu behar dute Institutuzio publikoek.

5.— "Kultura herritarra". Euskara eta euskal kultura herriaren historiari eta burruari lotuta daude. Hortik eta horren barruan sortu dira euskal kultur talde, elkarte eta erakundeak. Beraiei dagokie zuzenean haien normalkuntzari eragitea. Herriaren burrukaren, erresistentziaren eta mobilizazioaren barruan era daiteke euskararen eta euskal kulturaren normalkuntzarako plangintza orokorra eta koordinazio osoa. Kultura eliztaren nahiz instituzionalistaren aurkakoa da euskal kultura herritarra.

Euskal Kulturaren Elkartearen bila

Euskal kulturaren normalkuntza ez da urte batzutan lortzekoa; bidea luzea izango da. Batzarre iraunkorra, hori abiatzeko besterik ez da. Horren fruiturik finkoena, ordea, Euskal Kulturaren Elkarte finkoa eratzea eta indartzea izango litzateke.

Euskal Herriak bere historiaren momentu nagusitan bere kultur erakunde eragile eta koordinatzaile garrantziko batzu sortu ditu; horietan ezagunenak, "Real Sociedad Vascongada de Amigos del País", 1765ean eratuia, orduko

dinamika politiko, kulturazko, ekonomiko eta sozialari erantzuteko; eta "Eusko Ikaskuntza (Sociedad de Estudios Vascos)". 1918an eraikia, Herri honen pizkunde kultural eta politikoaren hasiera hartan.

Eredu ohoragarriak dira horiek. Beren testuingurutan eta beren helburu handiekin sortu ziren eta iraun dute. Euskal Kulturaren Elkarteak oraingo testuinguru eta krisialdi hizkuntzakoari eta kulturazkoari erantzun behar dio: Euskararen eta Euskal Kultura "euskaldunaren" normalkuntzari begira.

Horren definizioa ez da orain ematekoa. Batzarre Iraunkorraren egitekoetan nagusienetarikoa Elkarte horixe definitzea eta bideratzea litzateke, haren jarraipen bezala, eta harek markaturiko helburuak, planak eta programak aurrera eramateko eta mamitzeko.

Hasteko, galdera batzu ateratzen dira: Euskal Kulturaren alorreko Sindikaturen bat izango ote da Elkarte hori? Ez dut uste bide horretatik eratu beharko litzatekeenik, nahiz eta inoiz Sindikatuaren helburuetako batzu bete behar izan.

Euskal Kulturako Sailen konfederazioa izan behar ote du? Agian bai, sail bakoitzeko talde, elkarte eta erakundeak elkartu ondoren. Ala Asoziazio kultural soila izango al da?

Guzei hauek ametsak dira... Amets hutsak ote?

Euskararen isil-grebako isilaldi izugarriaren barrutik egindako amets larri baina liluragarriak, gutxienez.

Bete egin behar ametsak!
Paulo AGIRREBALTZATEGI

Euskaraz mintza gure ahotsa da.

Hona hemen euskaldun batek euskaraz mintzatzeko dituen arazoiren batzuk:

- 1 Euskal Herriaren mintzoa euskara dela.
- 2 Euskara dugula geure kulturaren oinarria.
- 3 Euskalduna izaki eta euskaraz egiten ez baldin baduzu, inork ez duela egingo zure ordez.
- 4 Lan bila baldin bazabiltza gero eta maizago ikusiko duzula "euskaraz jakitea eskatzen da", lanpostu askotarako.
- 5 Hizkuntza batek, etxean ez ezik, kalean, dendan, lantegian, ikastetxean, irrastian, telebistan, prentsan, behar duela erabilia izan. Bestela, hil egiten da, eta berarekin, herri baten kultura eta izakera ere.

